

LIBURUEN ALTXORRA-LIBURU IBILTARIAK

Saioen zer-nolakoak

1. LIBURU KUTXA ESKOLAN UZTEA

Eskola gehienetan hiru saio egin dira: HHkoekin ordu erdiko saio bat, LH1go ziklokoekin ordu erdiko beste saio bat eta LHko 2. ziklokoekin ordu erdiko hirugarren saioa.

Eskola benetan txikia denean, bi talde egin dira; HHkoekin 45 minutuko saioa egin dugu eta LHko guztiekin iraupen bereko beste saio bat.

Agendak liburu kutxak utzi direnean banatu dira, altxorra izan duten epean irakurri dituzten liburuen inguruko datuak hartzeko aukera izan dutelarik. Agenden banaketa saioen bukaeran egin da beti.

Aurkezpena

Talde guztiekin egin da adin bakoitzari egokitzuz:

- Gure burua eta Elkartea labur labur aurkeztu. Proiektuaren hamargarren urteurrena dela esanez.
- Liburuen Altxorra-Liburu Ibiltariak-eko kutxa nondik datorren eta nora doan.

Helburuak:

- Kutxak benetan eskola batetik bestera bidaiatzen duela ikustea eta barneratzea.
- Liburuak beraiengana heldu diren bezala, hurrengo eskolakoengana ere heldu daitezten, berauek zaintzearen garrantziaz jabetzea.
- Liburuak garaiz bueltan ekar ditzaten garrantziaz ohartzea.
- Arauak eta erabilera on baterako argibideak:
 - Kutxan datozen liburuak beraien liburutegiko liburuekin ez nahastea.
 - Gometxen esanahiaren azalpenak.
 - Mailegutarako koadernoaren erabilera azaldu.
 - Kutxaren bila bueltan gatozenerako liburuak eskolara ekartzen gogoratzea.

Helburuak:

- Umea eta irakasleak kokatzea eta segurtasun marko bat ezartzea. Taldearekin euspen lana egitea.
- Erabilera egokia bermatzea.

Momentu honetan saioen abiapuntua jarraipen bereziko liburuetan badago ere beti izan da aukera eta astia beste liburu batzuk aurkezteko. Gure saiakera, literaturaren mundu zabala eta anitza aurkeztea ere badenez, olerki eta testu erritmikoak ere saioetan erabiltzea ezinbestekotzat jo da.

HAUR HEZKUNTZAKO UMEEKIN.

2010/2011 Ikasturteko Jarraipen bereziko liburuak:

2 eta 3 urtekoentzat: *Kokoriko*

4 urtekoentzak: *Motx eta Potx*

5 urtekoentzat: *Basoak badu sekretu bat*

Liburu bakoitzak koaderno bat du: *Bitakora koaderno*a. Itsasoko kapitainek horrelako bat izaten dute ondoan, bidaian gertatzen zaizkien guztiak azaltzeko. Guk horixe nahi dugu, liburu bakoitzak eskolaz eskola sortu dituen burutazioak jasotzea eta eskolen arteko testigu bat ere sortzea, ikuspuntuak eta iritziak haien artean konpartitzeko.

Bitakora koaderno bakoitzak alde batetik ikasleen burutazioak jaso ditu. Koadernoko ezker eskuineko orrialde bana erabili ahal izan du eskola bakoitzak honetarako. Beste aldean irakasleek izan dute beren tokia. Honetan ere eskola bakoitzak ezker eskuineko orrialde bana izan du.

Hau guztia ondo, lasai eta argi azaldu zaie. Talde bakoitzari bere liburua eman zaie eta horren arduradunak izango direla argitu zaie.

Beste liburu batzuekin aukerak:

- Jolasteko ipuinak: *Tomasitaren Etxe koxkorra*, *Ikusi makusi baserrian*, *Nola dastatu ilargia*.

- Otsoen ipuinak aurkeztu: *Osaba Otso*, *Hiru txerri ttipi*, *Harri eltzekaria*...

- *Pupuan Trapuan* liburutik: *Niko eta Perikoren olerkia* edo *Pinpilinpauxarena*.

Bukatzeko ipuin bat kontatu zaie.

Bueltan altxorraren bila gatozenerako, oparitxo bat jasotzeak nolako ilusioa egiten digun azaldu zaie, umeak horretara xarmatuz.

LEHEN HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOKOEKIN.

2010/2011 Ikasturtean Jarraipen bereziko liburuak:

LH1: *Hiru Txerrikerien Txerrikeriak*.

LH2: *Aurrera Kakaraldo*

LH3: *Xomorroak ate azpitik*.

Haur hezkuntzako atalean aipatu bezala, egitasmo hau azaldu egin dugu. Eta aurreko liburu hauek aurkeztu.

Jarraian beste liburu aukera batzuk, aurkezteko denbora badago:

- Jolasteko liburuak: *Aizak eta Aizan* ..liburutik, testu erritmikoren bat edo elkarrizketa bat irakurri da. *Mintzo naiz isilik* liburutik asmakizunekin jolastu.

- Albumak aurkeztu: *Gerlari Handia*, *Kezkamuxelak*, *Aharrausi printzesa*...

- Olerkiren bat bota.

Altxorraren bila gatozenez, literaturarekin zerikusia duen zerbait jaso nahiko genukeela azaldu diegu. Marrazkiak estimatzen dira baina saioan ukitu ditugun aukeretako bat lantzen badute, olerkiak, testu erritmikoak, istorio laburrak...gusturago hartuko dugula adierazi diegu. Onartzen ditugu irakurritako liburu baten bertsio bat, amaiera desberdinen proposamenak, protagonisten aldaketak...

Gehienetan Kezkamuxelen ipuina kontatu zaie.

LEHEN HEZKUNTZAKO BIGARREN ZIKLOKOEKIN.

2010/2011 Ikasturtean Jarraipen bereziko liburuak:

LH4: *Zangozikin.*

LH5: *Sugandila Buztan Zopa.*

LH6: *Xia Tenzinen bidaia miresgarria.*

Jarraipen bereziko liburu hauen eta bitakora koadernoan inguruan arestian aipatutakoa hauekin ere errepikatu.

Gometxen funtzionamendua azpimarratu. Gometxa urdinak irakurtzeko eta ulertzeko errazagoa dela adierazten badu ere hauek irakurtzera, elkarri kontatzera animatu. Gordetzen duten edertasunagatik eta berauentzat irakurterrazak direnez, emango dien soseguagatik.

- Azkeneko aipamen honi helduz, Album batzuk aurkeztu zaizkie: *Basoak badu sekretu bat, Betiko, Kezkamuxelak...*
- Asmakizunekin jolastu: *Mintzo naiz isilik* liburuarekin.
- *Urrezko Giltza* liburutik: Sorginen ipuin bat kontatu zaie.

Axuri bihurriaren ipuina kontatzen hasi zaie nagusien talde honetan eta sekulako arrakasta izan du.

Saioaren momentu baten Irakurlearen eskubideen inguruan ere aritu dira, irakurketa gozagarria bultzatuz.

2. LIBURU KUTXA JASOTZEA

Altxorra batzeko ordu beteko tartea izan dute eskoletan. Alde batetik HHko umeekin batu da dinamizatzailea ordu erdiz eta LHko guztiekin beste horrenbestez.

Bi taldeekin dinamika antzerakoa izan da:

Altxorra eurenean egon den bitartean nola pasatu duten kontatu diote hurrek dinamizatzaileari, bitakora koadernoak jaso, egin dituzten beste lan desberdinak jaso, errezitatu edo erakutsi eta ipuina kontatzen zaie.

HHkoei: *Jonas eta hozkailu beldurtia.*

LHkoei: *Fatima.* Raimundo Buenoren istorio bat.

Agurtu, eskertu eta hurrengo ikasturtera arte patxoak banatu...